euskal-oria

ABERTZALE IBILLIAK

UNE BAT ELGETA'n

Igazi san iganderako, asmo eta ametsasko nere burusan sortu eta deseindu ziran.

Igandean bertan ere, arten jo-mugarik gabeko ametslari bat baño ez nintzan.

Elosu mendira joan gogoa, eta azru-goiko laño naraskiak zalantzan jarri ninduen; nere gogoak otzitu ziran. Bereala Elosu'rako ametsak astu ziztu! dan.

Gogo otzean ezin izan amets berorik; ainbat gutxi luzerik.

—o—

Afaisaldean ustez - ustegabe, golzeko laño naraskiak zertxo bat bildu dira, goi-beak udabeliko alaitasunez jantzirik.

Etxean sarturik igarotzeko etzan afaisalde ura eta ala oldozturil, abertzale egin-kizun batzuek zirala bide Bergara'ko efi txukunean laister nintzan. Pelota jokaldia ikustera joan ziran asko; ni ostera Aberi aldeko jokaldi amets-gogoak Bergara'tu ninduen.

An ziran gure anai bulartsuenak.

Aberi maitasunez ukaldi astun guziak arin zaizkien mendigoizaleak.

Aberi maitasunez ukaldi astun guziak arin zaizkien mendigoizaleak. Begi-biotzetan Aberia daramaten gudari kementsuak.

Besarkada sutsu eta itz anaikor bat oroei eta egafi detan poz asetasuna nere biotz barnean nabaitu nuan.

Bergara'n bertan eta besarkada batek oztu ziguten euskoen poz asetasuna.

—o—

Bergara'ko egnkizunak bete ondoren, Altzeta adiskide on eta euskogudari bulartsuaren gogo-nayez, Elgeta bidean jaři nintzan.

Altzeta kementsu onek tz egin bearzuan bertan. Elgetarak abertzaletasunean indar befitu bear zituan. Aldi gutxiren baruan irugafen itzaldia ematera zijoan. ¡Benetan Altzeta basefitar maitale aiz!

Agur egiñaz Bergara'ri mendi tarteko bitxabal zabalean goraka goaz. Gure aufeko gizaldiaren asaba zafak, biotzak negarti zituztela, gomuta txarteko guda baten ondoren, "atzipeturik goaz" esanaz, Euskal-Efia eriotz bidean jariko zuan besarkada maltzur baten ziñaldari izateko, beraka jetxi ziran bidean zear, gu goraka gijoazen. Orain arteko oldozmen samiñak, etorkizun zorionetsu baten ametsa pozgaiaz azturik.

Beraka, "atzipeturik goaz" esanaz jetxi ziranen ondorengoai ezari ziguten astuntasunak, atzipetasun ori egi argiz bifiudu ondoren, gure ondorengoai arindurik eskeintze aren.

Bere soñaren jabe dan Euzkadi bat gure atsedengarri betiko loan eta ondorengo seme - alaben pozgarri izan dedin.

Oldozmen oyek nere burmuña ñaspildurik zeukatela Elgeta'ko enparantzara eldu zan gure "gurdiya."

Altzeta'ri entzuteko egaztz ziur asko, bertan bildurik zegoan oste eder eta geure - geureak afera erin obeagoa egin siguten. ¡Ayek txaloak!

Berezko poza eman zidaten, bere ile zuriak, zuri - urdiñezko buru-zapiz estalirik zeuzka namonatxo agurgarri baten, poz erakutsi ziran txaloak.

Batzoki aretora, itzlokira bafendu giñan.

Bertan bildu zan oste edefak artiturik utzi ninduan.

Neska-mutil koskoťak leyotik at bete bear izan zitusten beren gogoak; gaurko gure ametsa biar beteko duten gogoak.

Ametsgaya atsegingarri izanik, zorioneko da ametsak egi biurtzea.

Igandez Elgeta'n orixe egin zuan Altzeta'k. Elegetarari, askorentzat amets zoroak diranak edo izatea nai dutenak, zegati argiz egi argiago agertu.

Esker eta eskubko guzien maltzurkeria azaldu zuan eta ala zion: Lengo gure askatasun izpi lañorik azaldu orduko guda gogofean jeikitzen ziranak, gaur "regionalismo", aberki - zaletasun itza mingañean arturik datortzigu; besteak beriz, beren buruak golmalara jaso auretik a'a etorri zitzaizkigun. baña, bat eta besteak, guziak beren ona dute ametsa gure bizkaretik.

Gure zorionerako bidea bat degu. Jaungoikoa eta Lege Zafa.

Basefitarak geyenak izanik, azkenan bereziki aben gana uferatu zan. Argiro agertu zien basefitaren bete bearak eta amaitu zuan esanaz:

"Gaur arte bezela, auzoko eskergabeari toki emanaz, basefitarak bazertuak izatea nai ez ba-dezute; zuen umetxoak eren euskera maitean ikaskizunak artuko dituzten ikastolak izatea nai ba-dezute, zuen laguntza eman biotzez efia maite dutenari eta ez gaur bat eta biar bestea, beti itz leunakin datozenai.

Guretzat ez degu ezer eskatzen. Guzia nai degu Euzkadi'rentzat, bertan zuek eta gu, guziok zorionetsu izan gaitezen.

Altzeta'ri jo ziozkaten txaloak ixildu ondoren, Eusko Abendaren Ereserkiya abestuaz amaitu zan, elgetarak sutu zituan itzaldi gartsu ura.

Itzaldia amaitu eta egonalditxo labur baten ondoren, Elgeta eta elgetarari agur egin genion.

Agur eginda Elgeta urindu zan, baña, bertan sortu zitzaidan oldozmen goxoak nerekin ekari nituan,

Etzait astuko Aberi maitasunez bertan igaro nuan une-alditxoa.

Elgetarai ez al-zaizute igandeko ikaskizunak astuko.

Olari

Lizardi'ri buruz

Egun auetan amaika idazkaldi eragin die euskaltzaleei Lizardi aipatuaren eriotzak. Biotz-ondokoa, ta ez makala ala ere, euskera maite degunontzat, aren eskutatze ori (G. B.) Nik, irakurle, etzaitut aspertu nai nere biotz-samiña zenbaterañokoa izan dan azalduas: iñori zabaldu gabe ere agirian degu guztiok eriotz ofek ekarí digun gogo gana.

"Lizardi"ren izena noraño edatu zegon, orraintxe agertu zaigu. Zaraturik gabe euskaltzale guztien biotzetan sarturik zenuan eta begi guztiak ari begira itxaropen osoz genituan. Ofegatik guztiok euskera-gaietan Irakasle nagusienetakotzat jo degu bera. Atseden bedi betiko "Argitan Irakasle ona".

Orain Lizardi'ren asmoak aufera eramaten naikoa izan izango degu. Etzaigu joan izan ere itzik esan gabe; berak biderik asko zabaldu digu ta nundik jatsi erakutsi ere, ederki asko egin digu. Aren amesik aundiena, euskera "zernaitarako" gauza egitea izan dezu ta bere "Txindufiak" izeneko azken-lanean ere, ames ori garbi azaltzen dizu. ¿Nundik ast baña? ¿Nundik jo ofetarako?

Eztezu Lizardi erakutsiak erdizko ematen dituztenetakoa. Zer egin esan ba-dizu, nundik lan ori biribilduko ere, azkar asko agertuko dizu. "Erderazko idaztirik irak ufi dugunean, aren mamia erakus genezako euskeraz, dio berak. Ez itzez-itz emana"... Auxe dizut nik zuri esangai, irakurle ta auxe zuk jasoko ba'zendu nai.

¡Bai ederki azaldu ere bere gogo au alako neurtitz guren aletan:

Ez adi beldur, nere Maitedeg;
baseriz landa nai aunat ager,
arazi, baztefik-bazter,
afoki; ezpaitzu ezer
lurbiran edefik i bezain eder!

Jainkoak beikigu ames gozo au. Bera lagun, goldatu ditzagun euskerarentzako sal befi asko Lizardi'k erakutsi antzera. Zerbait ikasi duanak azaldu beza euskeraz ikasitako oro. Irakurri dezuna gogoan batu ta euskeras jantzi ezazu. Itzez-itz euskeraltzeko eztezu edozein: ofetarako esku oso landuak bear; baña erderaz irakurritakoa norberak bere aokeras euskal jantziz azaltzee, ori askok egin dezakena dezu: ta ortik gure elea aberastu bearko degu.

Ofetarako euskel-idazle askok lotsa ta beldur gelegia, kendu-beafa degu. Erderaz diardugunean izan ere, askoz afoxkiago jardun ol-degu; baña euskeraz asten geranean oso bildurti gaituzu. Gure itz ala joskeratan, erderaksdarik sortuko ote zaigun bildurez beti; ta bildur onek euskel-lanetatik ufutiratu egiten gaitu bear baño geltxoago.

¿Ez al-dakizu galburua nola etofi ol-dan? Azia erein-ondoren, belartxo asko lenbizi ta lasto-sail aundia gerotxoago bota bear dizu lufak galbururik ekariko ba-du. Ta lasto luzearen gañean azkenik galburu-xorta goxoa gari-aletxoz ornituta.

Ikasi dezagun ortik euskeltzaleok ere, Euskerak askoren idaz-lan ugaria bear dizu. Lan oietan lastorik asko izango degu, baña ez bildurtu: lasto askoren buruz galburutxoak ere pixkanaka sortuko zaizkigu en-emen euskal-ore gozoa egiteko.

Esnatu gaitezen bada aspaldian euskal-lanak utzita geundenok ta alegindu lenez gain len esna zebilizanak. Guztion arten Lizardi'ren utsunea beteko al-degu erdizka bada ere. Auxe dizut gogo irakurle; gaurko asko degu.

ARTIZ'tar XABIER

Errera - Altza

"TUTE" BEA "MUS"ZKO TXAPELKETAK. — Efera'ko batzokiyan, asgaddiko ontan jokatzen ari ziran bi txapelketa abek, bukaera latikoak izan dira irabazi dutenentzako.

Tutian, azapi binako edo pareja'ren artian Afegi-Galafaga ta Asumendi-Arzak, 4—3 irabaziyaz, txapelduntasuna beregana'n zuten. Zorionak.

Gero esan dezatela, zarak daren tokiyan, gaztiak jokurako baliyo ez dutela.

Bañan gauza ez da emen bukatu. Azkena geratu dan binako edo parepak, ez esagutu nayian zeñen txarak diran, jakin detanez, listo emen dago jokatzeko arkume bat, txapelketa ontako irabaziari edo beste edozein binakoari, eta ortako "desafiyua" egiña emen daukate, Ikusiko da bateonbatek altxatzen duan.

Tute'kua lariya izan bada ere, mus ekua e zda gutxiyago izan. Iru binako zeuden berdin, bakottzak jokaldi bakara jokatzeko zutela, eta naiz Landa-Alkiza, eta Ansa-Elosegi'k, beren jokaldiak irabazi, Zubizafeta-Lecinaz, denbora guztiyan eufetik ibiliziranak, atsalde tzar batian, galdu zuten, danetan (14 binako) azkena geldittu diranakin, galdurikan itxaropen osoak. Beste batian izango dezute suerte obiagua.

Ofela, nolaz geldittu ziraden, bi binako aufetik, zein txapeldun izateko, beren artian jokatu zuten irabaziyaz Ansa-Elosegi'k 3—2, Landa-Alkiza'ri abek aufeneko bi "ustelak" egin afen Zorionak zueiri ere.

Ondoren, txapeldunari eman zizayen beren sariya.

ITZALDI ABERTZALEA. — Datofen larunbateko atsaldian, izango de Altza'ko Eusko Gaztediyak eratuta, kaxko'ko Batzokiyan, itzaldi aberkoi bat, itz egiñaz Ugarteixea'tar Donato jaunak.

Len, beste toki askotzaz gañera, entzun geniyon jaun oni Efera'n eta oso gogozkoa izan zitzaigun. Ofelaz oso zaletasun aundiya dago, beriz ere bere itz xamur eta mamitsua aditzeko.

ITTANI

EUSKEL IZENAK. — Usobiagu'tar Anakleto abertzale zintzoak uguritua ikusi du zendia alabatxo batekin. Izena Gilelma Luki jaři diote aurtxoari.

—Baita ere Elizalde'tar Sebasten oraiñ befiro arte Eusko Gaztedi'ko lendakari zanak Miren Nekane izen-polita jaři dio bere alaba jalo befiari. Zorionak abertzale oeri eta era berean beren emaztearí.

TXAPELKETA. — Amaitu dira batzokian, mus, puntxo eta tute'ko bazkideen txapelketak. Ona ondoren txapeldunak.

Mus'ean: Otaegi'tar Efamun eta Galafaga'tar Joseba.

Puntxoan: Afieta'tar Koldobika eta Muxika'tar Andoni.

Tutean: Otaegi'tar Andoni eta Esnaola'tar Joseba.

ITZALDI ABERKOIA. — Larunbatean (biyar) itzaldi aberkoia degu batzokian. Ugarteixea'tar Donato izlari trebea degu itzegiten. Zeiñ dan azaldu bearik ez dago noski.

Askotan inguru oetan entzuna izan aren, beriro ere oneri entzuteko gogo aundiarekin agertzen gera emengo abertzaleak.

G'etan izango da ela guziok bildu zaltezte berari entzutera.

"ALTZA-GAIÑ"

Kili Kili

FRANCE'ko burnibideak: Sugurdien (lokomotora) indarra bata beste igo egin da aspaldiko urte oyetan.

Ara emen egokiago ongintza (mejora) oyek.

1913 urte aldean, sugurdi onenak ta azkarenak 864 zaldi indar zuan.

1932 urtean beriz 1130 zaldi indar atera diote ikatz berakin.

Da esatea 1913'an, 62 aneiki (kilo) ikatz biar ta 1932'an 48.

Geyago oraindik: 1923 aldean, France'ko burnibidetan egiten zituzten 66.100 aneurkin edo kilometro, ta 1932'n 70.330.

Notintzakoak edo bidazko viajeroak bakarik ori.

Ori bultzin (trena) ugari ibiltzea ori!

Irun'dik Madrid'ra, 638 aneurkin edo kilometro daudez. Ba 111 bultzi egunero Irun'dik Madrid'ra esan nai dute oyek.

Bide motxagoau nola egiten bai duten bide askoetan ortik atera zenbat bultzi dabilen!

Irudi bat jaři nai nuen ta uste det ulertuko zendutela noski!

—o—

LUDIKO (Munduko) ibai aundienak bai luze ta bai ubide (cuenca) edo artzen duten lekua, zein diran na dezute jakin ta ikusi? Esan det lenago ere ez nuala biar bada erakustera askoeldi, bañan bai euskera zaletasun bitartez gure iskuntzari maitetasuna erazi nere anayai.

Ara ba ibai aundienak ta ezagurí batzuek oyen gain.

Izenak, nungo aldean, luze ta aneurkin (km.) laukituko artzen dutena.

Misisipi, U. S. A.; 6530; 3.245.000.
Amazonas: U. S. S.; 6200; 7.050.000.
Nilo: Afrika; 5760; 3.007.000.
Obi; Asia; 5200; 2.947.000.
Rio Plata; Am. Sur; 4700; 3.104.000.
Kongo; Afrika: 4200; 1.402.000.
Volga: Europa; 3570; 1.402.000.

Da esatea ibai luzeena Misisipi degu, ta motxena Volga.

Leku geyena artzen duena Amazonas degu ta gutxiena Volga.

Beraz, Volga txikien onek, berak bakarik artzen du bere bidean iru aldiz France'añeko lur bide.

Obetoago adieraztego, 744 aldiz gure Gipuzkoa onen lur lekuak igarotzen di tu asieratik itxasoraño bitartean.

Amazonas'ek beriz iya Europa guztiko leku bideak artzen ditu!

Ibai aundi geyen oyek gañean, alakoreen batean agertuko dizutet Y. L. bestee lan polit bat.

Nere usteez era atsegingarí bitartez, ta bidez Lutelesti edo Geografia ta euskera ikasiaz zabalduaz dancren onez.

Norbait

Ordizia'tik

¡Agur! emen "Euskal Ori" zabal ontan erenkara batzuek opa dizkian ari. ¡Agur irakurleo!! "Euskal Oria" nator ta nere lenengoko agur biak zubentzako izan bear.

Tamala da bai, baño egia esan bear bada Ordizia'n badira gizon jakintsu ta nik baño eskubide gelago dutenak ofi onetara azaltzeko. Zer egin asko beren gain dituela badakit noski, ta ofagatik izan naiz trebe baimenik iñork eman gabe omen agertzeko. Azketzi bada lenengo idazten dan idazkitxo utsak akatz askorekin izaten dira-te.

ZORIONAK EMAKUMEORI. — Urte oso bat igaro da emen jalo ziñatem. Ofen denbora pasatian, andereño ta umetxu abertzalez jantzi dezute Ordizia'ko efia. Afo egon dakizute zuen biditzako lenbiziko urte betetzea izan afen.

Abertzale-bafutiko lerjakariak ondo ditsatsi ta indartsuenak zerate.

Bai Aberi-lanetan efi ontako buru. Auek ezaltzeko asmo artuan ez naiz ni gaur. Zorionak bai beriz ere. Pozgaria baldin jai aldun bat balezake.

Igaro dan Joseba Deunaren igandez egun aundia Ordizia'ko Emakume Abertzale Batzarentzat, baita naiz uskeltzale edo abertzale uste geranontzat.

Goiz-goiztik gure Jaungoikoak opa izan zigun pesta-giro eder bat.

Eguzki gozoak muñ egiten zigun. Udaberia bera ere auferatu egin zala uste genduen da argi ta alaiago azaltzen zala zigun.

Alde guztietatik eskeintza zioten jai aldiari.

Gure emakumeak beren joan etofiakin da Rezola Jauna orsingo Gipuzkoa Buru Batzafeko idazkariaren laguntasun indartsuarekin egun eder bat eratu izan dute.

Ara emen agerkizun labura:

Bederatzietan jauna abestua, da eliz guztia abertzaleak bete zutela zer esanik ez dago. Baita kanpotar asko ere topatu gendun. Gero egoardi aurean Ordizia'ko Eusko Abesbatzak Garate jauna dalaz bizi dan onek, ainbeste aditzale belaríetara ipiñi zituban ongiena abestuta. "Txori ufetxindofa", "Amatxo", "Itzayu" da atsegin bat ondoren kalez kale bink Aizkenik beriz Eusko Abendaren Ereserkia. Txalo ugariak baño ondo beafekuak izan ziran ordaiñ onenak.

Tarte batean atera ziran efiko poxpolíñak. ¡Ura ikusmira edefa! Zenbat lan da neke ez dituzuen artu andereztzoak ainbeste befi politaz umetxu olen buru txikia jazteko.

Afatsaldean, sagar-dantza, zintadantza, uztai-dantza, espata-dantza ta abar egiñik iritxi zan itzaldi garala.

Ordizia'n onenbeste abertzale bildu azi zuena.

Bereala Rezola (Josebak) aufen itzak eginda mintzatu zuten.

Urzela'tar Julene izlari xamuña, alaia batez ere biotz zabala.

Artetxe'tar Joseba idazle bikaiña da eusko jakintzaren alde bere diñe lan egin duana.

Monzon'dar Telesfor Gipuzkoa Buru Batzafeko lendakari, gaztea izan afen jakintzuba gaur Eusko Alderdi Jeltzallaz bear bezelako agintaria.

Egun orojgafi au bukatzeko txistulariak alaitu zuten gazte-jende guztia ilunabararte. Ta orduban etxera gorputza ongi nekatuta baño anima asper-gabe argi ta lasa, bere eginkizunak bete dituanan dagokion bezela.

Ez da igestuko gure burutik Eusko jai aundi au, Ez da beñere bere orola abertzale ordizíafantzat galduko.

¡Ara! ¡Ara! Oraiñ aditu detanez, or "Krabelin txapel-txuri" batek esa na omen da: "Olako txotxolokeriak egiñik ibiliz etorkizun edefa dezutela zuek emakumeak". Gaxuak, bai gaxuak... Usteko dute zuben asmo ta ametsa guztia dala (itxuraz berava izan berduan bezela) or "Olasko-txefenen" deitzen diotenen bat gizon gai artzera. Jakin bear dute olek gure gogoi edo ideak gañantzi aundigoko itxaropenak bai ditula.

Asko luzatu izan naiz. Barkatu bada ta bukatzera noa.

¡Emakumeak! Zuek zabaldu dituzute Ordizia'ko euskotafen artean askatasunezko itxaropen bideak, eta egi uts laister biurtuko aldira gure nai eta usteak

Jaři bada ekin diozuten bide ortan eta denbora gutxi bafu "trikornioa" damakienak ere abertzale izango dira ta

ARDATZA

PARTOS - MATRIZ
R. JUSUE
CAMINO, 4. 1.º :-: teléfono 1-40-94

Vida religiosa

SAN VICENTE
Viernes de Cuaresma

Esta tarde, a las siete, a continuación del Santo Rosario, se dará la Bendición Eucarística y después se rezará el Vía Crucis, terminando este piadoso acto con un solemne Miserere y la adoración del Lignum Crucis.

TEMPLO DE NUESTRA SEÑORA DE LOURDES

Hoy viernes, a las tres de la tarde, tendrá lugar el solemne Vía Crucis en euskera.

A las siete se rezará el Santo Rosario y a continuación se hará el ejercicio del Vía Crucis en castellano.

PARROQUIA DEL BUEN PASTOR
Solemne Vía Crucis

Hoy, como viernes de Cuaresma, a las siete menos cuarto de la tarde, se hará el devoto y tiernísimo ejercicio del Vía Crucis.

Dicho ejercicio se verificará con la solemnidad de los años pasados, entonando en cada estación todo el pueblo las emocionantes estrofas de "Perdón, oh Dios mío" y "Misericordia, Señor, misericordia".

A continuación el solemne Quinario de N. P. Jesús Nazareno.

REINA MEDIAS

Churruca, 9 — Teléf.: 14.644
CASA ESPECIAL PARA MEDIAS, CALCETINES, GUANTES, LANAS Y PIELES DE TODAS CLASES

REUMATICOS

El tratamiento antirreumático del CURA HERNAIZ (antes conocido por el PARROCO DE LOS VALLES, de Burgos) os curará sencilla y radicalmente en menos de un mes. Millares de curaciones que pueden comprobarse. Legalmente elaborado y registrado en Sanidad.

Pedid informes a DON LUIS HERNAIZ
PBRO., BURGOS

Angel Eizaguirre
MEDICINA GENERAL :-: CORAZON Y PULMONES
RAYOS X Y ULTRAVIOLETA
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5
ALAMEDA, 14, 1.º
Teléfonos 12.509 y 12.450

I. LABAYEN
ESPECIALISTA
ENFERMEDADES DE PULMON
Alameda, 7 — Teléfono 15.369
SAN SEBASTIAN

Carbones - Leñas
Primitivo depósito de leña cortada en todos los tamaños. Antracita, cock, serriu, astillas, etc. ALBERTO S. ELIZALDE. Bermingham, C. Telf: 11.193

Dr. Benito Petschen
ESPECIALISTA EN PARTOS Y ENFERMEDADES DE LA MUJER
Prim, 17, entresuelo - Teléfono. 12.761

J. M. SANSINENEA
GARIBAY, 5, 2.º :-: Teléfono 1-24-63
ENFERMEDADES DE LOS NIÑOS
Consulta: de tres y media a seis, excepto los miércoles y sábados
Consulta gratuita en la Gota de Leche

Ferretería
Viuda de Juan Oria
Urbieta, 41,43 y 45 Tel. 10.414
herramientas, batería de cocina artículos de calefacción, cerraduras "YALE" de seguridad, etc.

J. Fuentes - Echeverria
MEDICO-DENTISTA
Garibay, 20, tercero — Teléfono 1-41-30

Camión U. S. A.
Se vende, seminuevo, de 5 toneladas. Informarán en esta Administración

Botellas para la sidra
Se liquidan de todas, a precios económicos
CARQUIZANO, 1 :-: Teléfono 1-38-11

Errenderi

Mendigoizaleak ¡Eup! Datofen ostiralean afatseko 10 etan danok batzafera.

Ez degu iñork ere utz egin bear. Mendigoizaleak ¡gertu!

—o—

Aste gutxi baru Eusko Batzokiak era tuta On Bide antzokian egundoko antzerki jai bikaiña izango degu.

Antzestuko da Altzaga jaunaren antzerkilan eder bat. Gure txistulari ospetzubak erestaldi eder bat joko dute. Espaladantzari gasteenak dantzaldia egingo dute eta Uri ontako poxpolíñak beren jolasketa eta abestiak agertuko diskigute.

Au bai izango dala benetako antzerki-jai bikaiña.

—o—

Datofen igandean Irun'en izango dan ostikolari "partidoa" uri ontatik notin asko jungo da.

Dakizuten bezela bertan jokatzen bai tu Intziarte'tar Jon Miren gure lagun ostikolar yayoak. Erenderiarak saleturik daude efikoxeme onen yayotasuna ikusteko.

—o—

Abeertzale! ¿Oroitzen aiz Arbide'tar Lander jaupari agurgarí eta abertzale zindoatzaz?

¿Oroitzen aiz zenbat eta zenbat lan egin zuan Aberi alde gure efian?

¿Oroitzen aiz zenbat zor diogun aber tzaleok berari?

Bai oroitzen aizi Malkoak dariokan jakin ubenian ¡Il zala!

Aste onetan izan dek urteurena. Eusko Batzokikoak gauz guzti abetaz oroitzen diralarik, datofen igandetako Jaupa Nagusia eratu ditek bere garo alde. Jaupa efi txadonan 10'etan kanpondek eta la danok etortzen zeraten batez ere Elenderi eta aldameneko erletakoak.

Abesariel beriz zer esanik ez ta ai dezuten guztiak etortzen zeraten eta Jaupa abestu eder bat iraten den igandekos. Bez igande arte.

Andoni

Lezo

Euskotaren biziera, orain arte bezela txukuna ta gure gurea dan bezela izatea nai badegu, aurerontzean ere, ez daukagu beste biderik datofen auteskunde edo botoetan euskotar bezela alegindu ta euskotafari gure autarki edo botoa ematen, ta buru-belaři, saiatu gitean gure gizonak, efiko gizon ateratzen, eta gure arerioak aldanez zapaltzen, Euzkadi oien atzapafetatik azke izan dedin.

Basetxeko orma xaretan, gure ele maitagafia, pitxi edefena bezela gorde duten, gure basefitar maitagafi ta eredunak, ez ditugu lagako, nolanai arerioak erameten, ori bein ere ez. Euren denbora guztian eper-azniko eseralki guridunan zale izan diran jauntxoak berak nai izan duten guztia egin izan diote gure basefitar gizajoari. Jauntxokeri denbora artan, gure basefitarak beren botoakin etzuten agintzen, etxe-nagusiak, agintzen ziotenari, nai ta naiez eman bear.

Baño gaur ezlago jauntxokerik, eta gizona azke dago bere botoa bere gogokoari emateko. Ori ikusteko, datofen igande ontan gure Batzokiko antzezlari gazte ta langileak, antzeztuko dute "Gurutzepe" bi ataleko, ta eusko gogo utsa dan antzerki ikusgafia, eta ondoren "Amets gozoa" atal batekoa! Antzerki-jai eder au, danak ondo ikusi dezaten, bitan egingo dute:

Afatsaldeko lauetan (4'etan) basefi tarentzako, eta 6 1/2'etan kaletaeftzako. Gure mutilak gogoz artu duten lan aundi au, ez basefitarak eta ez kaletarak, ikusi gabe ez geldittu, danon onerako izango da jai au ta, antzezlariak ta ikusleak, xorta bat egin ta eskefi denayogun egun ortan gure aberi bakara dan Euzkadi'ri, gure opari ederena, eta gure maitasun lufin gozoena. Alaxe.

ANASTAXIO

Dr. Clavero (dentista)
FUENTERRABIA, A, principal

Doctor Arrieta — Oido, nariz gargarita — Prim, 19, Tel. 1-06-44

Azpeiti

ELIZKIZUNAK. — Maria'ren Alabak, biar arunbatean izango dute, eren lleroko kongregazioa.

Dakizuten bezela, Ama Birjiña'ren eguna da, eta ofegatik aldezuten guztiok, jafaitu zazute txintxo - txintxo, beiñ ere baño laguntzaren biar aundiagua daukagun, une negargarí onetan, Jaumartze eder ofetara, eriotzako orduan ez dezute damu aundirik izango ta.

Igaro dan igande afatsaldean, oso elizkizun edefa izan zan, eliz naguzian.

Bertan guztizko itzaldi jator bat egin zuben, Jesusien Lagundiko, Alta Aizpuru itzlari ospatsuak.

Ondoren, Gurutz bide edo galbarioak, euskera garbian esan zituan, bertako Meenediola'tar Kapilau agurgafiak.

GAIXORIK. — Elizakuak artuta gai orik argitzen da, "Lertxundi" basefi'ko amona. Azkar sendatzia dezlatzen dizut.

EBAKUNTZA. — Donosti'ko San Antono gaixo etxian, ebakuntza edo operasio bat eginda argitzen da, Etxania'tar Lorentxa andereñua.

Tira bada, Lorentxa, ondo-ondo pixkortu ta, izketaldi goxo batzuek edukí ditzagun, lenbailen etof!.

Beatrix

Azpeiti

ELIZKIZUNAK. — Maria'ren Alabak, biar arunbatean izango dute, eren lleroko kongregazioa.

Dakizuten bezela, Ama Birjiña'ren eguna da, eta ofegatik aldezuten guztiok, jafaitu zazute txintxo - txintxo, beiñ ere baño laguntzaren biar aundiagua daukagun, une negargarí onetan, Jaumartze eder ofetara, eriotzako orduan ez dezute damu aundirik izango ta.

Igaro dan igande afatsaldean, oso elizkizun edefa izan zan, eliz naguzian.

Bertan guztizko itzaldi jator bat egin zuben, Jesusien Lagundiko, Alta Aizpuru itzlari ospatsuak.

Ondoren, Gurutz bide edo galbarioak, euskera garbian esan zituan, bertako Meenediola'tar Kapilau agurgafiak.

GAIXORIK. — Elizakuak artuta gai orik argitzen da, "Lertxundi" basefi'ko amona. Azkar sendatzia dezlatzen dizut.

EBAKUNTZA. — Donosti'ko San Antono gaixo etxian, ebakuntza edo operasio bat eginda argitzen da, Etxania'tar Lorentxa andereñua.

Tira bada, Lorentxa, ondo-ondo pixkortu ta, izketaldi goxo batzuek edukí ditzagun, lenbailen etof!.

Beatrix